

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik. Behin betiko onarpena. (Espedientea: 2020/65/S200)**

Udalbatzarrak 2020ko maiatzaren 15 egunean egin zuen Osoko Bilkuran hartu zuen 2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, hasierako izaeraz onartu zuen. Jende aurrean ikusgai egoteko epea igaro da eta horren barruan ez denez erreklamaziorik aurkeztu, aipatutako erabakia behin-betikoa bihurtu da, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 15.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Aipatutako otsailaren 9ko Foru Arauko 15.3 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin-betiko bihurtu den erabakia oso-osorik argitaratzen da eta argitaratua izan ondoren sartuko da indarrean.

Behin behineko erabakiak, hitzez hitz transkribatua, honako hauxe dio:

**“Gaia: Onartzea 2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko  
06/20 espedientea, kreditu gehigarrien emakidaz**

Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzua izapidetzen ari da 2020rako udal aurrekontuak aldatzeko 06/20 espedientea, kreditu gehigarrien emakidaz, ebazpen honen xedapen zatian azaltzen diren zehaztasunen arabera.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 34. artikulua aurreikusten duenez, “kreditu gehigarria emateko izapideari eutsiko zaio, zainpeturiko ordainketa krediturik eduki gabe edo, kreditua egonaz, berau askieza eta zabaldez bada, gasturen bat egin behar izan eta arau honetan araupetutako aldaketa erregimenaren bidez ezin bete denean”, adieraziz jarraian kreditu gehigarrien emakida bitartez kredituak aldatzeko espedientea izapidetzeko eta horrek lege-bideragarritasuna izateko bete beharreko betekizunak eta eskatutako baldintzak. Horiek guztiak bete izana jasota geratu da espedientearen.

Aipatu den 34. Artikulu horrek bere 2. Idatzi zatian eskatu duen bezala, espedientearen jasota geratu da gastuaren beharrez eta horren finantziarioa ere eskuragarri izatea.

Espedientea onartzeko eskumena Udalbatzarraren Osoko Bilkurari dagokio, 3/2004 Foru Arauko 29 artikuluan.

Aplikagarriak dira aipatu den 3/2004 Foru Arauko 15., 17. eta 18. artikuluetan azalduta dauden informazio, erreklamazio, publizitate eta errekestoei buruzko arauak, 34.3 artikulua xedatuta dakarrenaren arabera.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera (COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena):

“1. Sektore publikoko erakundearen prozedurak izapidetzeko prozedurak eteten eta epeak eteten dira. Errege Dekretu honek edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen dutenean hasiko dira berriro epeak.

2. Metodoak etetea eta epeak etetea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen zehaztutako sektore publiko osoari aplikatuko zaio.

3. Aurrekoa gorabehera, organo eskudunak, ebazpen arrazoitu bidez, prozeduran interesdunaren eskubide eta interesetan kalte larriak saihesteko behar-beharrezkoak diren antolamendu-eta instrukzio-neurriak erabaki ahal izango ditu, betiere interesdunak adostasuna adierazten badu, edo interesdunak epea ez eteteko adostasuna adierazten badu.

4. Xedapen honek ez die eragingo lehen paragrafoan aipatzen diren prozedura eta ebazpenei, prozedura eta ebazpen horiek alarma-egoera justifikatzen duten egitateei estuki lotutako egoerei buruzkoak direnean“

Martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, aurreko Errege Dekretua aldatzen duenak, aldatu egiten du 4. paragrafoa, eta 5. eta 6. zenbaki berriak gehitzen dizkio hirugarren xedapen gehigarriari. Honela idatzita geratzen da:

“4. Aurreko paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, sektore publikoko erakundeek, errege-dekretu hau indarrean jartzen denetik, erabaki ahal izango dute, arrazoiak emanez, alarma-egoera justifikatzen duten egitateekin lotura estua duten egoerei buruzko administrazio-prozedurekin jarraitzea, edo interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarriko funtzionamendurako ezinbestekoak diren prozedurekin jarraitzea.

5. Gizarte Segurantzaren afiliazioaren, likidazioaren eta kotizazioaren arloko administrazio-prozedurei ez zaie aplikatuko 1. paragrafoan aipatutako epe-mugak etetea eta epeak etetea.

6. 1. paragrafoan aipatutako epe-mugak etetea eta administrazio-epeak etetea ez zaie aplikatuko araudi bereziaren mende dauden zerga-epeei, eta ez die eragingo, bereziki, zerga-aitorpenak eta -autolikidazioak aurkezteko epeei “

Ondorioz, aldaketa-espeditente honen xedea alarma-egoera justifikatzen duten gertaerekin lotura estua duten egoerei dagozkien gastuak finantzatzea denez, espeditentea izapidetzen jarraitu behar da, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian adierazitako etendura gertatu gabe.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34.4 artikuluan eta Laudioko Udalaren 2020rako Aurrekontuak Beteazteko Arauaren 13.7 artikuluan xedatu bezala, tokiko erakundeen akordioak, zorigaitz publikoen edo aparteko interes orokorreko antzeko izaerako hondamendien kasuan kreditu gehigarriak ematea xede dutenak, berehala betearaztekoak izango dira, honako hauei kalterik egin gabe: Horien aurka egiten diren erreklamazioak. Horiek prestazioa jaso eta hurrengo zortzi egunen barruan bideratu beharko dira, eta ezetsizat joko dira errekurtsogileari ebazpena horren barruan jakinarazten ez bazaio.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta alde zuzenetik Osoko Bilkurako Gaiaren eta Mozioen Batzorde Informatibo Iraunkor Orokorraren irizpena izanda, osoko bilkurak hau:

## EBATZI DU

LEHENENGOA. Onartzea 2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 6/20 espedientea, kreditu gehigarriak emakidaz:

## Kreditu gehigarriak

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENDAPENA	ZENBAT EURO GEHIAGO
0500-9290-500.00	Kreditu globala eta bestelako ezustekoak (Covid-19 Funtsa)	500.000,00
<b>Kreditu gehigarriak guztira</b>		<b>500.000,00</b>

## Finantziazioa

2019ko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina txertatuta.

AZPIKONTZEPTU	IZENDAPENA	ZENBAT EURO
870.01	2019ko abenduaren 31an gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	500.000,00
<b>Finantziazioa guztira</b>		<b>500.000,00</b>

BIGARRENA. Laudio Udalaren 2020rako aurrekontu orokorra aldatzeko 06/20 zenbakia duen espedientea jendaurrean erakutsiko da hamabost (15) baliodun eguneko epean zehar, alde zehar aurretik ALHAOn eta Udaletxeko edo Herriko Etxeko Iragarrien Oholean erabaki honen iragarkia argitaratuko da, Osokoari erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA. Erabaki hau behin betiko onartutzat joko da jendaurreko erakusketa aldian zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten eta indarrean sartuko, edo indarra hartuko du, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 16. artikuluan erabakitakoa bete ondoren. Erreklamaziorik badago, Osokoak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

LAUGARRENA. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak, eragindako etendura kentzea, eta kreditu gehigarriak emateagatik 2020rako udal-aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea izapidetzen jarraitzea, 06/20 zenbakikoa, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren 4. apartatuari jarraikiz."

2020rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 06/20 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, behin betiko onartu duen erabakiaren aurka, interesatuek Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri dezakete zuzenean, ALHAOn erabaki horren argitalpen egunaren biharamunetik hasita bi (2) hileko epearen barruan.

Laudio, 2020ko ekainaren 25a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**